

Hitzaurrea

Jaiotzen den unetik, gizabanakoa gizarte-sistema konplexu batean murgiltzen da, eta denborarekin sistema horren inguruko ezaguera garatzea da bere betebeharririk garrantzitsuenetako bat. Alde batetik, ikasi beharko du beste pertsonengandik bereizirik dagoen gizakia dela eta ezaugarri bereziak dituela. Bestalde, ikasi beharko du beste pertsonak ere ezaugarri bereziak dituztela eta hainbat irizpideren arabera, hainbat taldetako kide direla. Bestetik, ikasi beharko du talde horietan mota askotako harremanak gertatzen direla eta harreman horiek zenbait arauen arabera direla. Azkenik, ikasi beharko du gizartea taldetan, sistematan eta erakundetan antolatzen dela eta, erakunde horietan zenbait helburu lortzearen, rol eta funtzio ugari betetzen direla. Gizarte-sistema osatzen duten alderdi horien guztien ezagutzari dagokio, hain zuzen ere, gizarte-ezagutza, eta esku artean duzun liburuaren helburu orokorra hau da: ezagutza mota horren garapenari buruzko ezaguerak zabaltzea eta horien inguruko hausnarketa bultzatzea.

Helburu hori lortzearen, liburuak sei ataletan banatu dugu. Lehenengoan, gizarte-ezagutzaren garapena delako ikerketa-eremuari dagozkion oinarri kontzeptualak eta metodologikoak azalduko dira. Hain zuzen ere, lehen ataleko lau kapituluetan honako gai hauek izango dira mintzagai: I. kapituluak, gizarte-ezagutzaren definizioa eta hura osatzen duten hiru eremuak (hots, pertsonartekoa, sozietala eta morala). II. kapituluak, ostera, gizarte-ezagutzaren garapena delako jakintza-arloaren historia azalduko da. III. kapituluak, gizarte-ezagutzaren garapena azaltzeko erabili ohi diren teoria klasikoak eta garaikideak izango dira hizpide. Azkenik, IV. kapituluak deskribatuko dira gizarte-ezagutzaren garapenari buruzko ikerketetan datuak biltzeko erabiltzen diren hainbat metodologia.

Bigarren atalean, berriz, testuinguruak gizarte-ezagutzaren garapenean duen eragina izango da hizpide, eta hiru kapituluak banatu dugu. Lehenengoan (V. kapituluak), familiaren eremuaren eragina izango da mintzagai; hain zuzen ere, aztertuko da haurrak gurasoekin, anai-arrebekin, aitona-amonekin, osaba-izebekin eta lehengusu-lehengusinekin dituen eragin-trukeek gizarte-ezagutzaren garapenean izan dezaketen eragina. Bigarrenean (VI. kapituluak), berriz, eskolak, hartzaindegiak eta antzeko hezkuntza-erakundeek eta beste haurrek duten eragina aztertuko da. Azkenik, VII. kapituluak ikus-entzunezkoek gizarte-ezagutzaren garapenean izan dezaketen zeregina aztertuko da; hain zuzen ere, telebistaren, ordenagailuen, jolas elkarreragileen eta Interneten eragina.

Hirugarren, laugarren eta bosgarren ataletan, ostera, gizarte-ezagutzako eremuei dagozkien hainbat gairen ezagutzaren garapena deskribatuko da. Lehenik eta behin, hirugarren atalean, pertsonarteko ezagutza delakoa osatzen duten norberaren ezagutzan (VIII. kapitulua), beste pertsonen ezagutzan (IX. kapitulua) eta pertsonarteko harremanen ezagutzan (X. kapitulua) gertatzen diren aldaketa ebolutiboak deskribatuko dira, hurrenez hurren.

Laugarren atalean, pertsonarteko ezagutza alde batera utzi, eta ezaguera *sozialaren* garapena aztertuko da. Ezaguera mota hori gai askori dagokienez eta gai horiei guztiei buruzko ezagutzaren garapena aztertzea ezinezkoa denez, ezaguera horretako zenbait gai aukeratu ditugu soilik. Hain zuzen ere, XI. kapituluan ekonomiaren inguruko ezagutzaren garapena deskribatuko da. XII. kapituluan, berriz, politikarena. XIII.ean, aberriaren ikusmoldearen eta nazio-identitatearen garapena izango dira hizpide. XIV. kapituluan bakeari eta gerrari buruzko ikusmoldeen garapena aztertuko da, eta, azkenik, XV. kapituluan generoari buruzko ezagutzaren eboluzioa.

Bosgarren atalean, berriz, garapen moralak deskribatuko da. Garapen moralaz ari diren psikologiek honako hauek azaldu nahi dituzte funtsean: a) nola jabetzen garen printzipio eta arau moralez, b) nola garatzen eta aldatzen ditugun printzipio eta arau horiek, eta c) zer harreman dauden garapen horren eta portaeraren artean. Horiek azaltzeko hainbat teoria dago, noski. Gu, hemen, horietako teoria batzuk kontuan hartuz, garapen moralaz ari diren zenbait psikologiatatik eginiko ekarriak saiaturako gara azaltzen. Lehenik, XVI. kapituluan moralaz eta printzipio eta arau moralez zer ulertzen dugun azalduko dugu, eta garapen moralak aztertzeko erabili ohi diren eta erabiltzen diren hainbat eredu teorikoren ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu. Gero, XVII. kapituluan, garapen moralaren eboluzioaz arituko gara. Azkenik, XVIII. kapituluan, saiaturako gara azaltzen testuinguruko zenbait faktorek zer eragin duten garapen moralean.

Liburuaren azken atala esku-hartzeari dagokio. Liburuan ikusi ahal izango den moduan, esku-hartzeak izugarritzko eragina izan dezake gizarte-ezagutzaren garapenean, emakumezkoen aurkako indarkeria, arrazismoa eta gure gizartean gertatzen diren beste hainbat arazo saihesteko. Atala osatzen duten bi kapituluetan, honako gai hauek aztertuko dira. Lehenik eta behin, XIX. kapituluan, esku-hartzeak gizarte-ezagutzaren eremuan duen garrantzia izango da hizpide, eta arlo horretan esku hartzeko erabilgarri izan daitekeen eremu bat aztertuko da; bakerako heziketa, alegia. XX. kapituluan, ostera, bakerako heziketaren eremuan garatu diren zenbait esku hartzeko programa deskribatuko dira.

Liburuko kapitulu bakoitzaren amaieran, irakurleari zenbait ariketa proposatuko zaizkio, irakurritakoa hobeto ikasi eta horren inguruan hausnar dezan.

Liburua, talde-lan zabal baten emaitza da. Batetik, L. Reizabalek, D. Gonzalezek, K. Sadabak, F. Azazetak, J. Valenciak eta L. M. Iturbidek kapituluak idatzi dituzte; horrez gain, lehenengoa argazkiez arduratu da. Bestetik, Kepa Etxebarria euskal preso politikoak liburuan agertzen diren hainbat marrazki egin ditu Pontevedrako A Lama espetxean. IX. kapituluan agertzen direnak, berriz, Koldo Sotok egin dizkigu.

Horiekin guztiekin batera, gogora ekarri nahi ditugu liburuan parte hartu duten beste zenbait lagun. Besteak beste, argazkilari-lanetan aritu diren Amaia Aranburu, Andoni Gabellanes, Malen Migueles, Gorka Reizabal, Martín Sarasua eta Alfredo Sebastián; zenbait kapitulu itzultzen lagundu diguten Oihana Pinacho ikasle ohia eta Iruñe Ibarra irakaslea; argazkiak ateratzeko baimena eman digun Amara-Berri ikastola; eta, noski, beren seme-alabak liburuan agertzeko baimena eman diguten gurasoak.

Azkenik, esan beharra dago, liburua idatzi ahal izateko, eskertu beharreko diru-laguntza bat jaso dugula: EHUko Euskara Errektoreordetzatik 2005eko Euskarazko Testugintza Sustatzeko Diru Laguntza.

Guztiei, esker mila!